

LAN OSASUN BOLETINA

AURKIBIDEA:

- 1. EZBEHARREN TXOSTENA 2011**
- 2. GAIXOTASUN ARRUNTEK ERAGINDAKO BIDAIEN GASTUEN ORDAINKETA**

1.- HEGO EUSKAL HERRIKO EZBEHARREN EGOERA 2011. URTEAN

1.- DATU OFIZIALEN ANALISIA

2011n Hego Euskal Herriko enpresen egoera, ezbeharrei dagokienez, ez da batere hobetu; batez ere kontuan hartzen badugu ekonomiaren oraingo gainbeheraren eraginez jarduera gutxitu dela.

EAera mugatzen bagara, eta Osalanek emandako datu ofizialak aintzat hartuz (**Lan Ezbeharren Estatistika Laburpenak**), 2011n **81.149** lan-istripu gertatu ziren, haietatik 47.137 baja hartu barik, eta 34.012 baja hartuta. 2010. urtean Osalanek **88.436** lan-istripu zenbatu zituen, haietatik 50.328 baja hartu barik, eta 38.111 baja hartuta. Heriozko istripuen atalean, datu ofizialen arabera **48** hildako zenbatu ziren lanaldiaren barruan. 2010. urtean kopuru ofiziala **45** hildako izan zen; kopurua, beraz, %6 igo da.

2011

EAE L.I. 2011	BAJA GABE	ARINAK	LARRIAK	HERIOZKOAK	GUZTIRA
BIZKAIA	21.037	17.253	91	22	38.403
GIPUZKOA	15.134	10.245	84	19	25.482
ARABA	10.966	6.243	48	7	17.264
EAE	47.137	33.741	223	48	81.149

Iturria: Lan Ezbeharren Estatistika Laburpenak (LEEL).

Nafarroan, 2011ko estatistika ofizialaren arabera, baja sorrarazi duten lan-istripuen kopurua 8.710koa da; horietatik 8,622 istripu arinak izan dira, 78 larriak, eta 10 heriozkoak. Ezbeharrei buruzko txosten ofizial batek dioenez ezbeharrak %6,8 jaitsi dira, iazko ekitaldiaren aldean.

NAFARROAKO L.I.	ARINAK	LARRIAK	HERIOZKOAK	GUZTIRA
2011	8,622	78	10	8.710
2010	9,358	74	14	9,446

Iturria: Nafarroako Lan Osasunaren Institutua, Lan Epidemiologiaren Atala, Osasungintzaren Ikerketa eta Ebaluazioa (2011/11/10).

Heriozko istripuen kasuan, Osalanek heriozko istripuen erregistro paraleloa eramaten du, non jasotzen diren, batetik IGATTen jasotakoak (mutualitateek Eusko Jaurlaritzako lan-agintaritzari lan-istripu eta lanbide-gaixotasunen agiriak modu telematikoan jakinarazteko sistema), eta bestetik Osalanek zuzenean erregistratu dituenak. Bi iturri horiek bilduz Osalanek **61 heriozko istripu** zenbatu ditu, baina badira beste batzuk **RESL**ren estatistika ofizialetan jasotzen ez direnak; esate baterako:

- Autonomoek jasandako istripuak.
- Kooperatibistek jasandako istripuak.
- “*In itinere*” istripuak.
- Gure autonomia-erkidegoan heriozko istripua izan duten kanpotarrak.
- Mutualitateek lan-istripuztat hartu ez duten istripuak.
- ...

Hori dela-eta erakunde ofizialek jasotako datuak ez datoz bat. Horregatik, heriozko istripuen kopurua ez da errealitatearen erakusgarri.

2.- ELAREN DATUEN ANALISIA

2011n **ELAk 78 hildako** zenbatu ditu, lan-istripuak direla-eta, Hego Euskal Herrian (67 EAEn eta 11 Nafarroan), iturri ofizialek adierazitako **58en** aldean. Horrek esan nahi du azpierreregistroko diferentzia 25,6%ekoa dela. Heriozko istripuen datu hori, hain erraz egiaztatzekoa izanik, hain desberdina baldin bada; zentzuzkoa da pentsatzea gainerako istripuen (larriak, arinak eta baja gabekoak) azpierreregistroko portzentajea are handiagoa izatea.

HERIOZKOLAN- ISTRIPUAK	2011	2010
BIZKAIA	28	26
GIPUZKOA	30	23
ARABA	9	16
NAFARROA	11	15
HEH GUZTIRA	78	80

Oraingo krisiaren eraginez lan-jarduerak izugarri behera egin arren, ELAk zenbatu dituen heriozko lan-istripuen kopurua %2,56 jaitsi da soil-soilik: 2010ean 80 hildako zenbatu baziren, 2011n 78. Gipuzkoan hildakoen kopurua igo da, 23tik 30era; Bizkaian ere 2 hildako gehiago izan da; Araban eta Nafarroan, ordea, zertxobait jaitsi da kopurua.

2011ko heriozko istripuen kasuak xehetasunez aztertuz gero, hurrengo ondorio hauek aterata ditzakegu:

- Istripuen %42ak ez dira traumatikoak izan.
- Istripuen %21 *“in-itinere”* gertatu dira.
- Istripuen %18 eraikuntzan gertatu dira.
- Zerbitzuen sektorean istripu-kopuru bikoitza gertatu da, eraikuntza-sektorearen aldean.
- 78 hildakoen artean %9 etorkinak ziren.
- Istripuen ia %16 azpikontrataturiko enpresetan gertatu ziren.
- Heriozko istripuen %15 garraio-sektorean gertatu dira.

Deigarria da zerbitzuen sektoreko lan-istripuen kopurua, eraikuntzan eta metalgintzan gertatu direnen aldean; azken horiek izan baitira orain arte istripu eta lanbide-gaixotasun gehien izan dituzten sektoreak. Hor ere islatu da bi sektoren horiek izan duten jardueraren beherakada.

Istripu ez traumatikoen kasuan %10 igo dira, 2010. urtearen aldean. Horren haritik, gogoratu behar da tankera psikosozialeko arazoak gero eta ugariagoak direla enpresetan, langileen osasunaren kaltetan, zeren heriozko istripu eta gaixotasunen eragile baitira. Arrisku psikosozialak antzemateko eta zehazteko baliabideak urriak dira — giza baliabideak zein teknikoak—, eta prebentzio-neurriak ere eskasak dira; nahiz eta nahaste psikosozialekin loturiko istripuak eta patologiak goraka joan etengabe.

Beraz, lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen zati handi bat ez da inoiz jasoko estatistika ofizialetan. Eta hortik estatistika ofizialak ez dira izango, inondik inora, HEHko benetako egoeraren adierazgarriak. Bai Eusko Jaurlaritzak, bai Nafarroako Gobernuak modu interesatuan eta lerratuan interpretatzen dituzte datuak, eskainitako informazioa partziala eta kalitate eskasekoa baita —aldi baterako kontratadunen eragin-tasa ostentzen da, *in-itinere* istripuak kanpo uzten dira (legeak lan-istripuztat hartzen baditu ere), eta abar—. Horrela, ezbeharren tasa urtez urte behera doalako itxurak eman nahi dira, hori egiatan gertatzen ez bada ere.

Esate baterako, ez dira halakotzat hartu, besteak beste, kamioilarien 9 heriozko istripu. Trafiko-istripu moduan hartu dituzte, kamioilarien lantokia errepidean dagoen arren. Era berean, ez da lan-istripuztat hartu enplegu-agentzia batek kontratatuturiko Paraguayko etxe-zerbitzari baten heriozko istripua. Emakume hori, garbiketa-lanetan ziharduela, hamargarren solairutik lurrera amildu zen.

Bestalde, patronala ere ez dabil oso urruti ezbeharren datuak interpretatzeko modu subjektibo horretatik. Hainbat urtetatik hona ezbeharren tasa hobetuz doala sinestarazi nahi izan digute, erregistroko datu ofizialak erabiliz, eta eragin-indize orokorrean oinarrituz (lanaldiaren barruan gertaturiko bajako istripuen kopurua, arrisku peko mila langileko. Indize hori zertxobait hobetu bada, Gizarte Segurantzaren afiliaturik dauden pertsonen kopurua jaitsi delako izan da; baina jarduneko langileen kopuruak alderatzen baditugu, ezbeharren tasa igo da.

Halaber, lan-istripuak eta gaixotasunak ezkutatzeko enpresek daramaten praktika irregularra aipatu behar dugu hemen. Izan ere, enpresak "bonus" delakoa lortzen ahalegintzen dira (enpresa batek lan-ezbeharren tasa murriztu duela frogatzen bada, Gizarte Segurantzak murriztuko dizkio lan-istripu eta lanbide-gaixotasunen kotizazioak). Askotan, enpresak ez du agirik ematen mutualitatera joateko, hortaz istripu horiek ez dira inon islatzen, eta enpresak lehen aipaturiko hobariak eskuratu ahal izango ditu. Zenbaitetan langilea etxera bidaltzen dute, edo lesioarekin edo gaixotasunarekin bateragarri den "bigarren jarduera" batean kokatzen dute.

3.- LANBIDE-GAIXOTASUNAK

Lanbide-gaixotasunen kasuan, Osalanek lanbide-gaixotasunen **3023** agiri ditu erregistraturik bere artxiboetan, Gizarte Segurantzari CEPROSS sistemaren bidez jakinarazi dizkionak. 2010ean **2752** erregistratu ziren.

EAE	BAJAekin	BAJA gabe	GUZTIRA
2011	594	736	3023
2010	797	710	2752

Iturria: CEPROSS

Nafarroan 2011n lanbide-gaixotasunen **1707** komunikazio-agiri erregistratu dira. 2010ean berriz Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak **1507** agiri erregistratu zituen.

NAFARROA	BAJAekin	BAJA gabe	GUZTIRA
2011	738	969	1707
2010	797	710	1507

Iturria: NLOI/INSL

Aurten aurreko urteetan baino lanbide-gaixotasunen kasuak gehiago erregistratu badira ere, lan-istripuak baino askoz gutxiago aitortzen dira. Ikusi besterik ez dugu zenbat hildako izan den amiantorekin loturiko gaixotasunen eraginez. Inon erregistratu ez diren hildako horiek 14 izan dira Hego Euskal Herrian. 2008. urtetik hona 74 hil dira, eta amiantoaren kontu hori hasi baino ez da egin. Eraginpeko pertsonak ez dute beste biderik auzitara jotzea baino, lanbide-gaixotasun moduan hartzea nahi izatekotan. Eta, dauden egoeran daudela, auzibidea oso bide latza da.

4.- ONDORIOAK

1.- Datuen gorabeheren ginetik, ezbeharrek egitura-osagaiak ere badituzte, eta ELAtik behin eta berriro salatu ditugu: goraka doan prekaritatea; azpikontratazio-indize hain handiak; lan-erritmo itogarriak; eta prestakuntzaren gabezia. Horiexek dira gizarte-gaitz horren arrazoi nagusiak.

Arestian indarrean sartu den lan-erreformak areagotu egingo du dagoeneko ikaragarri den ezbeharren tasa, lan-merkatua are prekarioago bilakatuko baitu.

2.- EAEko eta Nafarroako administrazioek ez dute hartu ez politikarik, ezta neurrikerik ere, arazo horren benetako zioei behar bezala aurre egiteko. Segurtasuna eta osasuna hobetzea ez bide da lehentasun politikoa gobernu horientzat. Esandakoaren isla ederki ikus daiteke azken urteotako aurrekontuen eskandaluzko murrizketetan, bai Nafarroako Lan Osasunaren Institutuarenean, bai Osalanenean.

3.- Ezbeharrei aurre egin nahi izatekotan, patronalaren interesen kaltetan doazen neurriak hartu behar dira. Hala ere, gobernuak eta patronalak ados daude nahi duten lan-harremanen ereduarekin. Eta ontzat jotzen dira prekarietatea, kontratazioaren arloko lege-iruzurra eta neurritz kanpoko azpikontratazioa. Horiek horrela, Osalanek, Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak eta Lan Ikuskaritzak ez dituzte beren eginkizunak betetzen lan-arriskuen prebentzioko arloan, alegia, enpresa arau-hausleei jarraipena egitea, kontrolpean edukitzea eta zehapena ezartzea.

4.- Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren aukera “gizarte-elkarrizketa”ko mahaiari lehentasuna ematea da. Eta kontzertazioko mahai horretako kide guztiak bat datoz ereduarekin, mahaikide horien garrantziko diru-iturria baita. Hori horrela, Osalanek eta Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak gero eta eginkizun gutxiago dauzkate.

5.- Ekonomiaren oraingo egoera bereziki aipatu beharrekoa da, enplegua suntsitzeko eta jardura gutxitzeko dituen ondorioengatik. Enpresek egoera urriari erantzuteko moduetako bat prebentziorako inbertsioak murriztea da; baina hori, zer esanik ez, lan-osasunaren eta segurtasunaren kaltetan doa. Alde horretatik enpresen praktika irregularrak gero eta ugariagoak dira, eta kaleratuak izateko langileen beldurraz baliatuz ezbeharren benetako datuak ostentzen dituzte sarri-askotan.

6.- Lanbide-gaixotasunei dagokienez, axolagabekeria erabatekoa dela salatu behar dugu. Datu ofizialek ez dute errealitatea islatzen. Argi dago lanbide-gaixotasunak ezkutuan mantentzen direla, eta benetan direnak baino askoz gutxiago jakinarazten dituztela. Munduko eta Europako mailetan lanbide-gaixotasunen hazkundea eta eragina hain gai kezagarria izanik —lan-istripuena bera baino kezagarriagoa—, hemengo herri-administrazioentzat gai hori hutsaren hurrengo da.

Osasun Sailak susmo-agiriak jakinarazteko duen eginbeharra ez du behar bezala betetzen. Halaber, horretarako eskumenak izan arren, administrazioek ez dute esku hartzen prebentzio-zerbitzuen aurka, honelako kasuak gertatzen direnean: prebentzio-zerbitzuek, mutualitateei kontingentzia hori ez leporatzearen, lanbide-gaixotasunen susmoak jakinarazi ez eta gehienetan osasun-zerbitzu publikora desbideratzen dutenean.

5.- ELAREN PROPOSAMENAK

1.- ELAk arlo honi buruzko politika publikoak zeharo aldatzeko eskatzen die gobernu guztiei. Horretarako, aurrekontu-zuzkidura handitu behar da, oraingo beharrianak betetzeko adinakoa izan arte.

2.- Enplegu duina eta eskubidez jantzia sortzea lehentasunezkoa izan behar da gobernuentzat. Ildo horretatik gobernuen zeregina da enplegua sortzeko politikak bultzatzea eta lan-eskubideak zabaltzea, prekarietatea ezabatuz, neurritz gaineko azpikontratazioa mugatuz eta kontratazioko lege-iruzurra zigortuz.

3.- Eskumen hori duten erakundeei eskatzen diegu zehapen-prozedura eredugarriak irekitzea enpresa errudunen aurka, eta lagunkide aritu diren zerbitzu mediko eta prebentzio-zerbitzuen aurka. Prozedura horien xedea prebentzio-arloko praktika txarrak antzematea da, bai eta aipaturiko praktikak abiapuntutik beretik desagerraraztea ere, langileen osasuna lantokietan hobeto zaintzearen.

4.- ELAk ekintza sindikala eta negoziazio kolektiboa bultzatuko ditu, lan-osasuna hobetzeko tresna egokiak direlakoan. Sindikatuak darabilgun arazo honetaz jendea jabearazten, antolatzen eta bultzatzen duen heinean egingo dugu aurrera gure eskakizunetan.

Bizkaiko Lan Epaitegiek bidaien gastuen ordainketaren inguruan erabaki

2.- Mutualitateek Gaixotasun arrunten deialdiek sortarazten duten bidaien gastuen ordainketaren aurka agertzen dira.

Mutualitateek, arauen irakurketa murriztaile eta partziala eginez, langilek mutuen zentruetaraino egindako bidaien gastuak ordaintzeari uko egiten jarraitzen dute, kontingentzi arruntaren aldi baterako ezintasuna 365 eguneko epe maximoa bete baino lehen.

Ohiz kanpoko egoera honen aurrean, sindikatuaren zerbitzu juridikoeek Lan Epaitegian erreklamazio ezberdinak egin zituzten, Lan eta Inmigrazio Ministerioaren TIN /971/2009 Ordena eta ondorengo erresoluzio eta azalpenetan oinarrituta, gastu hauek ordaindu egin behar direla ulertzen dutelako.

Kontextu honetan, halaber, Bizkaiko Lan Epaitegiek modu ezberdin batean erantzun dute. Bizkaiko 4.en Lan Epaitegiak gastuak ordaindu egin behar direla ulertzen duen bitartean, Bilboko beste epaitegi batzuetan, erreklamazioek ez duela zentzurik plazaratzen dute. Azkenean, langileak bere salaketa zein epaitegietan tramitatzen den arabera, emaitza halakoa izango du. Hau onartezina da.

Urtarrilaren 25eko jardunaldian azaldu genuenez, Mutualitate eta patronalak kontingentzi arrunten kudeaketa areagotu nahi dute eta honek langile gaixoengan alta lehenago hartzeko presioa handiagoa izatea eragiten du. Mutualitateetara joateko bidaien gastua ez ordaintzea eta gastu hori langileek bere gain hartzea, Mutualitateek kontingentzi arruntak ez kudeatzeko beste argudio bat da.